# Modak

**TXILLARDEGI**



AMB *Espanya no hi ha res a fer. Manin les dretes, mani el centre, mani l'extrema dreta, mani l'extrema esquerra. Amb Espanya no hi ha res a fer»*. Horrela mintzo da J.L. Carod-Rovira katalunar abertzalea.

Ondorioa garbi agertzen da: ERCko deputatu ezagunaren iritziz, Katalunak ez dauka ezer onik itxaroterik Espainiatik: ez ezkarraren aldetik, ez eskubitik. Kezka bidezko bakarra hau da: *«Quin pot ser el camí per a deslliurar-nos d'Espanya?»*

Nor mintzo da horretara gurean? Hemengo 'abertzale' (?) batzuk aspaldidanik barreiatzen duten mezua hau da: *«Sentirse cómodos en España»* eta *«hablar cristiano por encima de todo»*.

Baina, jakina, 'moda-ren' arabera.

Orain dela urte batzuk modan jarri zen *«superar el nacionalismo vasco con argumentos marxistas»*. Gero gauza bera baina *«con argumentos postmodernos: fin de las ideologías»*, eta abar. Orain Mladic eta Karadzic dira mamua: *«Ya veis a dónde lleva el nacionalismo»*. Aurki Chirac-Aznar bikotea izango dugu gainean, eta beste itxura bat hartuko du euskal abertzaletasuna 'superatzeko' joerak.

Oraingoz, lehen marxista-leninista-maoista muturrekoak izandako batzuengandik, 'ironia progre' gisa jantzirik bide dator: *«Todo porlapatriaeuskalerriaaskatu asignatura»*, eta abar. Badakizue: «Oh euzkadi».

Irriz eta trufaz, gutaz. Garai batez *«estamos contra el imperialismo vasco»* esan ohi zuten kasta horretakoek. Baina, zaudete lasai: 'eusko arrautza-z' barre egiten dutenak, eta ikurriña *'simplemente un trapo'* dela esaten zutenak (multzo berbera dela esan beharrik ez dago, are pertsona berak ere: gor jendea), ez dira sekula menturatzen koarteletako *'Todo por la patria'* defenditzen duten gorri-horiak erasotzen; ezta txantxarik xumeena ere botatzen.

Madrileko zirkoa hor egonik ere, 'eusko arrautza-renek' zirko bakarra somatzen dute: Lasa, Zabalza, Muguruza eta Brouardena.

Horien ustez: *'Amb Euskal Herria, mai'*

# HEMEROTEKA

**EL MUNDO**

## Jubilazioaren teologia

Beti onena pentsatzen duten batzuek untziola publikoen birmoldaketari buruzko berriak entzunda usteko dute zirt edo zarteko une batean gaudela, eta gure herriko untzigintzaren izatea edo ez-izatea dagoela auzitan, hala nola gure ekonomian horien antzeko enpresa publikoek betetzen duten eginkizuna, edo itsasadarraren geroa. Bada, inola ere ez. Aspaldi badakigu hondamendi honek ez duela erremediorik.

Orduan, zertaz eztabaidatzen dute?, zergatik kolapsatzen dute trafikoa, hondatzen dituzte bulegoak, erretzen dute eskura duten guztia...? Jubilazioagatik, ez beste ezerengatik: zein baldintzatan, zein urterekin, nortzuek, eta, batez ere, zenbat.

Benetako eztabaida, hainbat eratan ezkutatu nahi dutena, hori da: ea ematen diguten Labe Garaietakoei eman zieten kopuru bera, hori ezinbesteko erreferentzia bihurtu baita, nahitaezkoa konparazioak egiteko. Inor gogoratzen al da labe garai zaharrak mantendu edo, bestela, altzairutegi berria onartzearen inguruko polemika hartaz? Eztabaida, benetan nahi zutena lortutakoan amaitu zen: diru publikoetako 250.000 pezeta, gainontzekook ordaintzen ditugun pentsio bikainak garantizatzeko: 52 urtetik hilobira arte.

**ANTON PEREZ DE CALLEJA**

**Libération**

## Huts egindako aukera

Proba nuklearrak arma berriak prestatzearen sinonimo dira. Baina zertarako? Oraindik ere ez da inon inolako doktrina estrategikorik ikusten. Ohartuko ginen proben inguruan nekez aurrera egiten ari den eztabaidak ez duela aztertzen proba hauek eragin dezaketen kalte ekologikoa, baizik eta, arrazoi osoz, ugaltzeko dagoen arriskua, hau da, Frantziak emandako etsenplu txarra, azkenean oraindik ere argi ikusten ez den emaitza bat lortzeko; ez bada gogoan hartzen, behintzat, Frantzian oso indartsua den *lobby* nuklearraren nahiak berriro ere nagusitu zaizkiola lehendakari berriari, edozein lehendakari aukeratu berrirekin gertatuko litzatekeen bezala. Hori, burujabetasunaren ikuspegitik, ez da batere eredugarria.

Iniziatiba mediatiko eta estrategikoak ugaldu egin dira: talde presidentzial berriak ia hiru hilabetetan erabilitako energia bera ere kilotoitan neurtu behar da. Frantziako iritzi publikoa ondo ohartu da horretaz, nahiz eta apenas ikusten duen energia gastu hori erabat zuzenduta dagoela Chirac aukeratzeko funtsezkoa izan zen arlora: sozialera. Eta horren berri sondaketa-talde guztiek jasotzen dute.

Egun, Ozeano Barean proba nuklearrak berriz hastearen biktima nagusia Jacques Chirac deitzen da. Arrazoi berezirik ez dago horregatik pozteko. Izan ere, estatuburu gisa beharko lukeen maniobra tartea ez da kaltetu bakarra; Frantzia ere kaltetuta atera da, Chiracen erreinaldia inauguratzea helburu nagusia zuen probak eragindako astinaldi negatiboa jasan behar izan baitu nazioartean. Ez zegoen horren beharrik.

**EDITORIALA**




*Duela hamabi urte landatu zuten, eta begira zein eder den! ... Eta zenbat zomorro hazi dituen bere itzalean...*

**FERRERES / LA VANGUARDIA**

# ZUZENDARIARI

## Tildea

Iragan den hilabetean Gaztelazale batzuek manifestazio bat antolatu zuten Katalunian herri honetan gaztelerak jasaten omen duen 'bazterkeiaren' kontra eta *tildea*-ren alde, katalanak gaztelerazko graphiaren ezaugarri hau onartzen ez duelakoan.

*Tildea*-ri buruzko polemika hori ez da gauza berria, lehenago hasi baitzen Europako Ekonomi Elkartea Europan egiten diren konputagailuen teklatuetatik Ñ letra kendu nahirik, Europako normen bateratzeko asmoz omen. Liskar honetan nork zuen arrazoia eta nork kaltea esatea nahiko gauza zaila da, baina nire irudikoz, alde bietatik heldu polemikak ez du zentzurik.

Lehenik oker pentsatu dute Brusselako legegileek eta teknokratek tankera honetako lege bat egitekotan: gaztelerazko *tilde*-arekin kalapitan hasten badira zer jarrera har dezakete alfabetu berezia duen grekoarekin eta letra bereziak dituzten Skandinaviako beste hizkuntzekin? Normalizazioaren izenean ezin diezaiokete grekoari alfabetu grekoaz hornituriko teklatu baten erabiltzerik edo egiterik debekatu.

Noski, legegai horrek espainiarren harrotasuna eta minberatasuna ukitu eta mindu ditu, gazteleraz bakarrik *tilde*-a erabiltzen delakoan. Baita euskaldunok ere oraindik leku askotan erabiltzen dugu *tilde*-a, graphismo hau euskara menperatzen ari den erdara batetik heldu arren; ikus dezagun adibidez, Zuberoan nola idazten den Urdiñarbe eta ez Urdinarbe. Euskaltzaleen artean edonork badaki graphiak ez duela euskararen etorkizuna ezbaian jartzen, baita edozein hizkuntzalarik edozein hizkuntzari buruz ongi dakiena ere. Euskararen graphia, beste hizkuntzena bezalaxe aldakorra izan da mendeetan zehar; aldaketa hauek ez dira euskara orain arte ofizialtasunik gabeko mintzaira izan delako gertatu; euren lurraldeetan indartsuak izan diren eta izaten diren hizkuntzak ikertzekotan adibide andana bat aipa dezagu:

Bigarren mundu gerla bukatu ondoren, alemaniarrek alfabeto gothikoa utzi dute; Turkian, mendebaldekoei hurbiltzeko asmoz alfabeto latinoa onartu zuten mendearen hasieran; Errumanian idazkera berezia liburu zaharrentzat, erlijioarentzat zein apaingailuetzat utzirik, alfabeto latinoa erabiltzen da, baita ere orain arte alfabeto zirilikoa erabiltzen zen Moldavian.

*Tilde*-ari buruz zergatik griña? (edo grinia??) Espainiarrek baizik ezin dezakete erabaki Espainia ala España idaztea; *Tilde*-ari buruz Espaniako Errege Akademiak erabaki lezakenarengatik, bizi-bizirik iraunen du gaztelerak Europan eta Amerikan. Aldiz, ordenagailuek ez dute beren sistema sophistikatuen bidez hizkuntzen graphiak menperatu eta zuzendu behar, baizik eta hizkuntza bakoitzaren zerbitzurako eta onerako egon beharra dute, mintzaira oroko hiztunen borondatea eta nahia errespetatuz.

Jadanik bide honetatik abiatu da informatika, zeren eta orain mikrokonputagailu guztietan edozer hizkuntzatan dauden graphismoak *software* berezi baten bidez teklatuan agertu gabeko graphismo guztiak (edo gehiena behintzat) egin ditzakegu. Honi baderitzot bide hobekiago, Brusselak erakutsi nahi duen neojakobinismoari baino.

J.LAFITTE

**Budapest (Errumania)**

# Panella

**XABIER OLARRA**



ABUZTUKO igande bateko 'telediario' baten bukaeran izan genuen Panella diputatu italiarraren azioetako bat ikusteko aukera: dei bat egin zien komunikabideei droga bigunei buruzko legeria nabarmenki hausteko asmoa zuela aldarrikatuz. Hor ikusi ahal izan genuen polizia haren etxetik bi *cannabis* landare hartuta nola joan zen. Pozgarria bazen gutxienez horrelako aitona bat 'saltsa xelebre' horietan sartuta ikustea. Baina ez pentsa xelebrekeria hutsa denik. Amsterdam alde batera utzita, Europako estatuetan hain nabarmena den hipokrisia agerian utzi baitu, ohartu nahi duenarentzat, noski. Eta baten batek pentsatzen badu hauek kontu merkeak direla, galde diezaiotela joan den astean bertan Nafarroako egunkari batean gutun baten bidez berari gertatua salatzen zuen gazteari: bi porro egiteko materialekin harrapatu zuen Poliziak, eta isuna ezarri omen dio epaileak (50.000tik 1.000.000 batera bitartekoa omen dagokio droga-mordo beldurgarri horri). Isuna zenbatekoa izango den zehaztea epaileari dagokio. Baina pentsa zer gerta dakizukeen Euskalerria Irratiaren kasuan epaia eman zuenaren eskuetan jartzen bazaituzte...

Bitartean hemen abuztuko kezka-gai nagusia, zenbaitentzat behintzat, Bilboko apezpikuaren *pedigree*-a izan da. Nahiago nuke, etorkizunaz eta gazteriaz horrenbeste arduratzen omen diren horiek Panellarengandik zerbait ikasiko balute. Baina seguru aski okerreko atean ari naiz joka. Agian Cuerda jaunari zuzendu beharko natzaio (deitura bera ere hurbilago dauka kalamutik, *cannabis*-etik alegia), eta intsumisioari, bikote ezkongabeei eta beste zenbait gairi buruz gutxieneko sentsibilitatea erakutsi baitu, ea Gasteizen Amsterdameko *coffe-shop*-etan antzeko tolerantzia guneak irekitzeko aukera ematen duen. Eta apezpikuen gora-beherez horrenbeste arduratzen direnak konforma daitezela mezatako ardo goxoarekin.

# GAIA JARRITA




## Ordiziako gazta

Atzokoan Ordizin
hura zoramena
gaztai istilu horrek
ipini zuena,
batek milioi erdian
zuen eramana.
Orain jendeak hau da
esaten duena:
aurten Elutxetan da
postrerik onena.

JOXE LIZASO

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90
ISSN 1134-640X

OJDk IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URIA

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitatea: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gudarien etorbidea. z/g / 20140 Andoain ☎ 300 222 / Erredakzioko faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73 ☎ Publizitatea: 13 19 65

Nafarroa: Iratxe Monastegia. 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77 / ☎ Publizitatea: 17 66 86

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.ezkerra. / 48003 Bilbo ☎ 410 40 46/ Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orokorra: 410 38 55 Publizitate Lokala: 410 38 46

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14. 1/ 503 Posta kutxatila. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11